***INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA***
*Día internacional del medio ambiente*

MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

# ¿Economía verde?

## *Etekin handiak ingurumenaren kontura*





bizi!

**2012ko ekainaren 5a, EHUko paraninfoa (Bilbo)**
*5 de junio de 2012, paraninfo UPV (Bilbao)*

## **Egitaraua**/Programa

**09:30.- Aurkezpena**/Presentación (Mikel Noval, ELA Azterketa Bulegoa)

**09:40.- ELA eta Ingurumena** (Ainhara Plazaola, ELA ingurumena)

**10:00.- Vivir bien con menos (Yayo Herrero)**

**11:00.- Elikadura burujabetzaz hausnarketak** (Esther Vivas eta Yayo Herrero)

**11:30.- Atsedena /** Descanso

**12:00.- Elkarretaratzea /** Concentración

**12:15.- Cumbre de Río+20: Movilización y Alianzas** (Esther Vivas)

**13:15.- Bizi! mugimenduaren esperientzia** (Adrien Kempf, Bizi!-ko kidea)

**14:00.- Amaiera**




# *¿Cómo afrontar el declive ecológico de una forma justa?*

**Yayo Herrero**

Los seres humanos dependemos radicalmente de una naturaleza finita y de los tiempos que otras personas, mayoritariamente mujeres en las sociedades patriarcales, dedican al cuidado de los cuerpos, también finitos y  vulnerables. Ambas dependencia son insoslayables, pero la cultura capitalista, y tristemente también algunas racionalidades de corte anticapitalista,  se han construido de espaldas a la existencia de esa doble dependencia.

Vivir de espaldas a los límites materiales ha conducido a construir un modelo de producción distribución y consumo en guerra con las bases físicas y los procesos dinámicos que mantienen la vida. Y además este modelo es profundamente injusto y desigual y no ha sido capaz de satisfacer las necesidades básicas de la mayor parte de la población..

Nuestro mundo occidental denomina producción a la generación de  beneficios monetarios sin que importe nada la naturaleza de la actividad que sostiene esa producción. Da lo mismo “producir” hortalizas que armamento. Sólo importa que esa producción (en realidad extracción y transformación de recursos finitos preexistentes) incremente los agregados monetarios que sirven para medir el crecimiento económico.

En un planeta con los límites desbordados, en donde algunos materiales hoy imprescindibles para el funcionamiento del metabolismo agro-urbano-industrial ya se encuentran en fase de declive, el decrecimiento de la esfera material de la economía no es una opción. La escasez de combustible fósil, agua dulce o suelo fértil es ya una realidad irreversible que cotidianamente viven muchas personas, sobre todo en países de la Periferia.

Puesto que la esfera material va a decrecer queramos o no, el esfuerzo de aquellas organizaciones y movimientos sociales que defiendan la igualdad y la justicia debe centrarse en la construcción de otra economía que sitúe la producción como un categoría ligada al mantenimiento de la vida y no a su destrucción. En esa línea resulta perentorio analizar cuáles son las producciones y los trabajos socialmente necesarios que conviene potenciar y cuáles son aquellas actividades nocivas que conviene reconvertir protegiendo colectivamente a las personas que trabajan en ellas.

Se dice que la economía es el proceso de generación de bienes y servicios que permite la reproducción social. Sin embargo, la propia reproducción social que se da en los hogares y que recae, dada la división sexual del trabajo, en las espaldas de las mujeres, es sistemáticamente ignorada, y cuando tiene visibilidad económica por estar asalariada, constituye uno de los sectores más precario, vulnerable y explotado.

Durante demasiado tiempo el movimiento ecologista y el sindical han vivido de espaldas o confrontados. Un ecologismo social anticapitalista debe hacerse cargo de las contradicciones entre el capital y el trabajo, debe preocuparse por el mantenimiento de la negociación colectiva y del derecho del trabajo. Un sindicalismo que viva enraizado en los territorios reales no puede ignorar que el modo de producción capitalista se contrapone esencialmente al mantenimiento de la vida.

Debatir el propio concepto de trabajo para que incluya no sólo la llamada producción, sino también la reproducción y la gestión del bienestar cotidiano que recae en los hogares; explorar qué sectores y actividades sirven para satisfacer necesidades humanas y cuáles hipotecan el futuro, incluso en el corto plazo; indagar qué alianzas y sinergias pueden hacer confluir en luchas comunes a movimientos como el sindical, el ecologista y el feminista, entre otros, ...Estas son tareas inaplazables en un momento en el que tejer alianzas y articular movimiento parece ser el único camino para resistir ante “el golpe de estado” neoliberal que vivimos y para construir otra realidad que pueda ser justa y compatible con el planeta que nos alberga.

***YAYO HERRERO***



*Yayo Herrero (Madrid, 1965) es directora de FUHEM, una entidad sin ánimo de lucro dedicada a la investigación y divulgación de temas ecosociales y a la educación comprometida, laica y compensadora de todo tipo de desigualdades.*
*En el terreno del activismo es co-coordinadora Confederal de Ecologistas en Acción.*

*Forma parte de los consejos de redacción de las revistas Ecologista y Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global.*

*Sus principales líneas de investigación son el Cambio Global, sus impactos ecológicos, sociales y culturales y las vías de salida, así como los vínculos y sinergias entre feminismo y ecologismo .*

*Es coautora de " Cambiar las gafas de ver el mundo. Una cultura de las sostenibilidad" (Libros en Acción, 2011), "Decrecimientos: sobre los que hay que cambiar en la vida cotidiana, coordinado por Carlos Taibo (La Catarata, 2010),"Claves del Ecologismo Social" (Libros en Acción, 2010), "Educación y ecología. El curriculum oculto de los libros de texto" (Popular,2007)*




# *Antikapitalismoa eta krisi ekologikoa*

**Esther Vivas**

Gizateriak krisi ekologiko orokorra du aurrez aurre, eta krisi horren adierazpenik agerikoena klima-aldaketa da. Une honetan aurrean duguna erabateko zibilizazio-krisia da, ekonomia, gizartea, ekologia, energia eta janaria batera jotzen ari den krisia. Era horretan, argi dago kapitalismoak, gizateriaren gehiengoaren oinarrizko premiei erantzuteko gaitasunik ez izateaz gain, arriskuan jartzen dituela bai gizateriaren beraren biziraupena, bai izadiaren oreka.

Krisi ekologikoa ezin da banandu bera eragin duen sistema ekonomiko eta sozialetik. Horregatik, krisi ekologikoari aurre egiteko, klima salbatzeko, oraingo ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu kapitalistaren bihotzeraino irits daitezkeen politikak behar ditugu, ukitu kosmetiko soilak egiteko politikak barik. Ildo horretan, krisi ekologikoak eta klima-aldaketak klima-justiziaren eta gizarte-justiziaren aldeko borrokan elkartu, kapitalismo berdearen eta berniz ekologikoaren gezurretatik ihes egin eta gizarte-politika liberaletara jo beharra dakarte.

Kapitalismo berdeak, klima-aldaketaren lasterketan parte hartu nahian, gizartearen eta ingurumenaren kontrako inpaktu handiagoak ekarriko dituzten hainbat irtenbide teknologiko eskaintzen ditu: energia nuklearra, atmosferako karbonoa atxiki eta biltegiratzea, bioerregaiak,... Horiek guztiak gezurrezko irtenbideak dira, oraingo egoerara ekarri gaituzten egiturazko zioak ezkutatu eta krisiaz negozioa egitea bilatzen dutenak.

Kapitalismoak ezin dio aurre egin berak sortutako krisi ekologiko orokorrari. Bere logikak, ahalik eta etekinik handiena bilatzean eta etengabe zabaltzeko beharrizanean datzanak, izadiaren orekaren aurka jotzen du. Kapitalaren eta politika kudeatzailearen berezkoak diren epe laburrerako mozkinek eta hauteskunde-taktikek talka egiten dute gizateria, bizia eta izadiaren oreka epe luzera babesteko aukeraren kontra.

Hortaz, antikapitalismoa eta justizia ekologiko zein klimatikoa elkarloturik azaltzen zaizkigu. Oraingo eredu ekonomikoa eraisteko edozein asmo estrategia okerrean ibiliko da, krisi ekologikoaren garrantzia aintzat hartzen ez badu. Eta kapitalismoaren kontrako joerarik ez duen ikuspegi ekologista oro, halaber, porrotera joango da ezinbestez: aurpegia garbitzeko politiken koartada bihurtuko da, arazoaren gainazalean geldituko da eta marketing berdearen mesederako tresna izatera ere heldu daiteke.

Sindikalismoaren eta ekologismoaren arteko itunak funtsezko estrategiaren atal dira orain. Sindikatuen erronka ikuspuntu ekologista euren eguneroko jardueran, euren ikuspegi orokorrean eta munduaz duten ikusmoldean sartzea da. Alderantziz ere, mugimendu ekologistak bere egin behar du gizarte-justiziaren eta gizarte- eta lan-eskubideen defentsa.

Ikuspegi ekologistarik gabe lanpostuen defentsan baino ez dihardun sindikalismoa ez da irtenbidea. Ez eta gizarte-ikuspegirik ez duen ekologismoa ere. Klima-aldaketaren aurka, adibidez, gizarte-oinarri sendoa eta gizarte- eta klima-justizia lortzeko aldi bereko helburua dituen mugimendu bat eratzeko aukera sindikatuen eta mugimendu ekologistaren arteko antolaera onaren menpe dago, neurri handian.

Sindikalismoaren eta ekologismoaren arteko elkarrizketak, hala ere, oraingo ekonomia- eta gizarte-ereduaren muin gogorrari aurka eginez ekologia- eta gizarte-krisia errotik amaitarazteko borondate irmoa izan behar du abiapuntu. Ez marketing berdeak, ez merkatuko ekologismoak ezin dituzte lorrindura ekologikoa eta klima-aldaketa gerarazi, eta kontzertazioak eta desmobilizazioak ere ezin dute gizarte-eskubide eta -lorpenen higadura geldiarazi, ugazaberien murrizketen eta erasoen aurrean. Sistema aldatzeko, mundua oinarritik eraldatzeko eta "bestelako mundu bat" defendatzeko helburuak guztion iparrean egon behar du, zalantza barik.

***ESTHER VIVAS***



*Esther Vivas (Sabadell, 1975) Pompeu Fabra Unibertsitatean Gizarte Mugimenduei buruzko Ikerketan dihardun CEMS Zentroko kide da, bai eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gobernu eta Politika Publikoetarako IGOP erakundearen kolaboratzaile ere. Viento Sur aldizkariaren erredakzioan hartzen du parte.*

*Sakonen jorratu dituen ikerketa-ildoak gaurko nekazaritza-eredu industrial nagusiak gizartean eta ingurumenean eragiten dituen inpaktuak, eredu horren ordezko hautabideak eta gizarte-mugimenduak dira.*

*"En pie contra la deuda externa" (El Viejo Topo, 2008) liburuaren egilea da, bai eta JM Antentas-ekin batera argitaratutako "Resistencias globales. De Seattle a la crisis de Wall Street" (Ed. Popular, 2009) eta X. Montagut-ekin idatzitako "Del campo al plato. Los circuitos de producción y distribución de alimentos" (Icaria ed., 2009), "Supermercados, no gracias. Grandes cadenas de distribución: impactos y alternativas" (Icaria ed., 2007) eta "¿Adónde va el comercio justo?" (Icaria ed., 2006) azterlanena ere.*

*+ info: www.esthervivas.wordpress.com*